

Hizkuntza politika publikoari so

Iparraldeko probintzietan hizkuntza politika publikoa garatzen den lehen urtea bizi-tzen ari gara eta balorazioa egiteko goizegi bada ere, gertakarien jarraipen hurbila egiteak merezi du. Euskalgintzako herri mugimenduek ikasi behar dute —eragile publiko baten sortzeak sakon aldatu duen konfigurazio berri honetan— beren jarduera kokatzea eta dinamika autonomoa bultzatzearekin batera, eragitea, akuilu funtzioa antolatzea.

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) bere proiektu definitiboa aurkeztu zuen urte hasieran sorpresa handirik gabe. Hots, euskalgintzako herri mugimenduek egindako zuzenketa eta emendakin batzuk integratu bazituen ere, funtsezko puntuetan —euskarazko legezko ezagupena, helburu, lehen-tasun eta epe zehatzak— proiektua bere horretan gelditu zen. Halere, proiektuak mugak eta ahulguneak izanik ere, haren lan ildo guztiak bideratzeko botere publikoek badute zer egin eta hitzak ekintzak bilakatuz gero, dudarik gabe euskararen egoera hobetuko litzateke.

Bitartean, izenpetu berri duten hitzarmena jarraikiz, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak diru banaketarako lehenengo deialdi amankomuna luzatu dute, aurretik atalka partidarik finkatu gabe. Aurkeztutako egitasmoen arabera trinkatuko omen dute. Ariketak desorekak eta arazoak sortzen ahal ditu, norabide batzuen araberrako diru banatzeak soilik eman bailieziaioke politika publiko bati bere koherentzia. Diru laguntzak ezagutuz gero, ikustekoa da irizpide eta lehentasun argiak agertuko ote diren.

Urteko lehen hilabete hauetan EEP Iparraldeko Herri Elkargoekin elkarlanean sortu nahi



DANI BLANCO

duen hizkuntza teknikarien sarea osatzen ari da. Sare hori tresna garrantzitsua da lurralde osoan politikaren koherentzia segurtatzeko. Haatik, horren kudeaketa ariketa zaila bezain arrisku-tua da. Herri Elkargo desberdinetako barne tirabira politikoez gain, EEPk eta Elkargo bakoitzak erdizka ordaintzen duten teknikariaren lana eta lehentasunak adostu behar dituzte. EEPk, Iparraldeko instituzio bateko hizkuntza zerbitzua balitz, lana errazago luke. Baina ez da hala, eta pentsa daiteke hauteskunde zikloa amaitu bitartean (2008ko herri eta kantona-menduetakoak bereziki), gorabeherak ikusiko ditugula.

Hizkuntzaren legezko ezagupenari doakio-nez, aldatzeko parada gutti aurrei-kusten dira. Hauteskunde presi-dentzialetako bigarren itzulian gelditzen diren bi hautagaiak Konstituzioko 2. artikulua alda-tzearen kontra agertu dira. Royalek hizkuntza guttitiuen Eurokarta berresteko asmoa adierazi du, Sarkozy-k ez bezala, baina bigar-ren honek hizkuntza lege bat egiteko engaiamendua hartu du. Halere, azken urteetako esperien-tziak lekuko, aurrerapenak traba-tzeko oztopo juridikoa Konstitu-zioa izan denez beti, kasu batean zein bestean, hitz emandakoa ez betetzea da seguruen.

Alabaina, azken hilabeteetako gertakari kez-kagarriena irakaskuntza alorrean izan da. Joan den apirilaren 7ko manifestaldian salatu zuten bezala, hiru eskola sareak (ikastolak, publiko eta pribatu elebidunak) kaltetuak gelditu dira heldu den sartzeko postuen banaketarekin. Frantziako Hezkunde Nazionalak, EEPko partaide izan-ik ere, haren egitasmoaren kontra jarri da bete-betean. Alta, hiztun osoak sortzea helburu duen hizkuntza politika proiektuak leku zentra-la aitortzen dio euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapenari. Gurasoek nahi dute, herrietako hautetsiak prest dira, iritzi publikoa alde da. Kontradikzio larria da EEPrentzat. Bere sinesgarritasuna jokatzeko duen ataka honetatik nola aterako da? Aliatuak eta aurka-riak ongi bereiziz euskalgintzako herri mugi-menduen artean egon beharko dira, euskararen onerako behar bezala eragiteko. ■

Gurasoek nahi dute, herrietako
hautetsiak prest dira, iritzi publikoa
alde da. Kontradikzio larria da
EEPrentzat. Bere sinesgarritasuna
jokatzeko duen ataka honetatik
nola aterako da?

